**2024KO IRAILAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 26 DE SEPTIEMPRE DE 2024**

| | |
|---|---|
| **LEKUA**: Beasaingo Udaletxea | **LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain |
| **ARETOA**: Batzar Aretoa | **LOCAL**: Salón de Plenos |
| **EGUNA**: Hogeita seia | **DIA**: Veintiséis |
| **HILABETEA**: Iraila. | **MES:** Septiembre. |
| **URTEA**: Bi mila eta hogeita lau. | **AÑO**: Dos mil veinticuatro |
| **HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko seietan. | **HORA DE COMIENZO**: Dieciocho horas. |
| **BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa. | **CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria. |
| **DEIALDIA**: Lehena. | **CONVOCATORIA**: Primera. |
| **OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17) | **NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17) |

**UDALBURUA / PRESIDENTA**:
LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK / REUNIDOS**:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

**ETORRi GABEA / AUSENTE**:
NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL

**IDAZKARIA / SECRETARIA:**
ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

En la reunión también han participado la interventora Lurdes Alegría Lasa y la intérprete Lurdes Auzmendi.

**1.- AURREKO AKTA**. Ondorengo aktaren onespena: 2024-07-22

**1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación del acta de 22-07-2024.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da, inolako zuzenketarik aurkeztu ez delako.

Tras informar el acta se aprueba por unanimidad al no haberse presentado enmienda alguna .

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

**2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN**:

a.- KREDITU ALDAKETA. 2. KREDITU TRANSFERENTZIEN ESPEDIENTEA ETA DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETA. 2024TRFR0002

a.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS. EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS 2 Y MODIFICACIÓN DE ANEXO DE SUBVENCIONES.

Ezagutzera ematen da Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordean informatu zena:

Se da a conocer la propuesta de Alcaldía, que se informó en la Comisión de Organización:

*“GAIA.- Kreditu Aldaketa. 2. Kreditu Transferentzien Espedientea eta Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa.*

*“ASUNTO.- Modificación de créditos. Expediente de Transferencia de créditos 2 y modificación de Anexo de Subvenciones.*

*Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:*

*Esta Alcaldía eleva al Pleno la siguiente Propuesta de Acuerdo:*

*1.- 2. Kreditu transferentzien bidez 56.450,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:*

*1.- Aprobar inicialmente la modificación de crédito que se financia mediante transferencia de crédito por importe de 56.450,00 euros, según se especifica en el anexo, y que se resume por capítulos del siguiente modo:*

*GASTUEN GEHIKUNTZA*

*INCREMENTO GASTO*

| Kap. | Izena | Euro |
|---|---|---|
| 2<br>4<br>6 | Gastu arrunt eta zerbitzuen erosketa/Compra bienes corrientes y servicio<br>Transferentzia arruntak /Transferencias corrientes | 10.265,00<br>23.450,00<br>22.735,00 |

| | | |
|---|---|---|
| | Inbertsioak / Inversiones | |
| GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO | | 56.450,00 |

*GASTUEN BAJAK* BAJAS DE GASTOS

| *Kap.* | *Izena* | *Euro* |
|---|---|---|
| *4* | *Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes* | *56.450,00* |
| | *FINANTZIAZIOA* | *56.450,00* |

*2.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hasiera batean onartzea, bertan espediente honen helburu ondorengo partidak handituz edota txertatuz: 0240.481.330.00.20, 0240.481.330.00.17, 0240.481.330.00.19, 0261.481.341.00.01, 0380.481.338.00.02, 0243.481.431.50.01.*

*2.- Aprobar inicialmente la modificación del Anexo de Subvenciones, modificando y/o incluyendo en el mismo las siguientes partidas objeto de este expediente: 0240.481.330.00.20, 0240.481.330.00.17, 0240.481.330.00.19, 0261.481.341.00.01, 0380.481.338.00.02, 0243.481.431.50.01.*

*3.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.*"

*3.- Someter a exposición pública la modificación del anexo de subvenciones por espacio de 15 días al efecto de presentar alegaciones, entendiéndose definitivamente aprobado si no se presentara reclamación alguna."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

En el turno de intervenciones los asistentes se muestran de acuerdo con la propuesta.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

En consecuencia, tras realizar la votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

b.- KONPROMISUZKO KREDITUEN ERANSKINAREN ALDAKETA. MRR-PRTR: "IGARTZAKO MONUMENTU MULTZOA» KULTURA INTERESEKO ONDASUNA MANTENTZEKO ETA ERABILERA TURISTIKORAKO BIRGAITZEKO". 2024EKBO0092

b.- MODIFICACIÓN DEL ANEXO DE CRÉDITOS DE COMPROMISO. MRR-PRTR: "MANTENIMIENTO Y REHABILITACIÓN DE USO TURÍSTICO DEL BIEN DE INTERÉS CULTURAL "CONJUNTO MONUMENTAL DE IGARTZA".

Ezagutzera ematen da Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordean informatu zena:

Se da a conocer la propuesta de Alcaldía, que se informó en la Comisión de Organización:

*"GAIA.- Konpromisuzko kredituen eranskinaren aldaketa. MRR-PRTR: "Igartzako monumentu multzoa» kultura intereseko ondasuna mantentzeko eta erabilera turistikorako birgaitzeko"*

*"ASUNTO.- Modificación del Anexo de Créditos de Compromiso. MRR-PRTR: "Mantenimiento y rehabilitación de uso turístico del bien de interés cultural "conjunto monumental de Igartza".*

*AURREKARIAK*

*ANTECEDENTES*

*1.- 2023ko maiatzean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez, eta Beasaingo Udalak hitzarmen bat sinatu zuten, Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen den Donejakue Bideari atxikitako "Igartzako monumentu-multzoa" kultura-intereseko ondasunaren erabilera turistikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu jasangarria gauzatzeko, Europar Batasunak – Next Generation EU – finantzatutako berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren barruan.*

*1.- En mayo de 2023 se firmó un convenio entre la administración general del País Vasco, a través del departamento de Turismo, Comercio y Consumo, y el ayuntamiento de Beasain para la ejecución del proyecto sostenible de mantenimiento y rehabilitación de uso turístico del bien de interés cultural "Conjunto monumental de Igartza" afecto al Camino de Santiago a su paso por la comunidad autónoma del País Vasco, enmarcado en el plan de recuperación, transformación y resiliencia – financiado por la Unión Europea – Next Generation EU.*

*Proiektu hori finantzatzeko, Beasaingo Udalak 700.000,00 euroko diru-sarrera jaso zuen 2023an.*

*Para la financiación de dicho proyecto el Ayuntamiento de Beasain recibió un ingreso por importe de 700.000,00 euros en el año 2023.*

*2.- 2024ko ekitaldian zehar, aurreikusitako jarduketen zati bat gauzatu da, zehazki Igartza jauregirako ikus-entzunezko ekipoak hornitzeari eta instalatzeari dagozkionak, 102.933,22 €-ko zenbatekoan. Beraz, egiteke dauden jarduketei dagozkien gastuen finantzaketari lotutako gerakina 597.066,78 eurokoa da.*

*2.- Durante el ejercicio 2024 se han ejecutado parte de las actuaciones previstas, en concreto las correspondientes al suministro e instalación de equipos audiovisuales para el palacio de Igartza, en un importe de 102.933,22 €, por lo que el remanente asociado a la financiación de los gastos correspondiente a las actuaciones pendientes de ejecutar asciende a un importe de 597.066,78 euros.*

*3.- Aurreikusitako jarduerekin jarraitzeko, kontratazio-espediente berri bat hasiko da, eta 2025eko ekitaldian gauzatzea aurreikusten da.*

*3.- Para continuar con las actuaciones previstas se va a dar inicio a un nuevo expediente de contratación cuya ejecución se prevé para el ejercicio 2025.*

*Hau guztia dela eta, Udalbatzari egiten zaio ondorengo PROPOSAMENA*

*Es por ello que, se somete la siguiente PROPUESTA a la consideración del Ayuntamiento Pleno:*

*Lehenik.- Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kreditua txertatuz:*

*Primero.- Modificar el Anexo de Créditos de Compromiso, incluyendo en el mismo el siguiente crédito de compromiso:*

*2.025 urtea:*
*0350.623.336.00.02 MRR-PRTR: Instal. Igartza monumentu multzoa : 597.066,78 €."*

*Año 2.025:*
*0350.623.336.00.02 MRR-PRTR: Instal. Cojunto monumental Igartza: 597.066,78 €"*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

En el turno de intervenciones los asistentes se muestran de acuerdo con la propuesta.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

c.- 2024KO ORDAINSARIEN IGOERA AKORDIO PROPOSAMENA. 2024PEBO0154

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena:

"*Gaia: 2024ko ordainsarien igoera akordio proposamena.*

*AURREKARIAK*

*Lehenengoa.- 2024-06-25ean, ministroen kontseiluaren erabakiz, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua onartu zen, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituena eta zerga, energia eta gizarte arloetan premiazko neurriak hartzen dituena. (2024ko ekainaren 27ko BOE).*

*Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoerei dagokienez, aipatutako Errege Lege Dekretuak, 6. artikuluan (esteka), hau arautzen du:*

*"Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-neurriak.*

*6. artikulua. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoera 2024. urterako.*

*1. 2024. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ehuneko 2ko gehieneko igoera globala izan ahal izango dute, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, azken horietan barne hartuta 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinatasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek*

En consecuencia, se aprueba la propuesta por unanimidad.

c.- PROPUESTA DE ACUERDO DE INCREMENTO RETRIBUCIONES 2024.

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Organización:

*"Asunto: propuesta de acuerdo incremento retribuciones 2024.*

*ANTECEDENTES*

*Primero.- El pasado 25-06-2024 por acuerdo de consejo de ministros se ha aprobado el Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social. (BOE 27 de junio de 2024).*

*En lo referente a los incrementos retributivos del personal al servicio del sector público, el mencionado Real Decreto Ley, regula en su art. 6 lo siguiente:*

*"Medidas de carácter retributivo del personal al servicio del sector público.*

*Artículo 6. Incremento retributivo del personal al servicio del sector público para el año 2024.*

*1. En el año 2024, las retribuciones del personal al servicio del sector público podrán experimentar un incremento global máximo del 2 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2023, incluidos en estas últimas los incrementos derivados de lo previsto en el artículo 19.Dos.2 de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Este incremento retributivo*

*2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.*

*2. Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko da, hala badagokio, 2023ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPI harmonizatuaren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen badu. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPI harmonizatuaren datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...)"*

*tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2024.*

*2. Asimismo, con efectos de 1 de enero de 2024, se aplicará, en su caso, un incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento, respecto a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2023, si la suma de la variación del IPCA de los años 2022, 2023 y 2024 superara el incremento retributivo fijo acumulado de 2022, 2023 y 2024. A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPCA del año 2024, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE (…)"*

*Bigarrena.- Aurrekoa ikusita, eta EUDElek aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsari-igoerei dagokienez egin izan duen bezala, ordainsarien arloan egon daitezkeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jo zuen euskal udalei honako GOMENDIOA egitea:*

*Segundo.- A la vista de lo anterior, y tal y como EUDEL ha venido realizando en lo referente a los incrementos retributivos del personal de los Ayuntamientos de los ejercicios anteriores, en aras a aclarar las posibles interpretaciones en materia retributiva, se considera oportuno formular a los Ayuntamientos Vascos la siguiente: RECOMENDACIÓN*

*Baimendutako legezko maximoaren % 2ko igoera orokorra onartzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinatasunari dagokionez. Ordainsari-igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.*

*Aprobar un incremento global del máximo legal permitido del 2%, respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2023, incluidos en estas últimas los incrementos derivados de lo previsto en el artículo 19.Dos.2 de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Este incremento retributivo tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2024.*

*6.2 artikuluan araututako % 0,5eko ordainsari-igoera gehigarri eta finkagarriari dagokionez, 2024ko KPI harmonizatuaren datuak Estatistikako Institutu Nazionalean (INE) argitaratu*

*En lo referente al incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5% regulado en el artículo 6.2, se deberá atender a la publicación en el Instituto Nacional de Estadística (INE) de los datos del IPCA del año 2024, y será con*

*arte zain egon beharko da, eta geroago onartuko da igoera horren aplikazioa, Ministroen Kontseiluaren Akordioaren bidez. Akordio hori BOEn argitaratuko da, eta EUDELek unean-unean emango dizue horren berri.*

*Hirugarrena.- Beasaingo Udalaren osoko bilkuran, 2023ko abenduaren 5ean, 2024ko aurrekontua onartu zen, ordainsari-igoerekin eta aurrekontu-esleipen nahikoarekin.*

*Laugarrena.- 83/2024 EBAZPENA, uztailaren 31koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien 2024. urterako igoera onartzen duen Erabakia:*

> *Baimentzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden urteko guztizko ordainsarien % 2ko igoera orokorra, Euskal Autonomia 152. zk. 2024ko abuztuaren 6a, asteartea EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 2024/3810 (5/3) Erkidegoko Administrazio Orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko entitate publikoetako eta sektore publikoko partzuergoetako lan-kontratudunak ez diren langileentzat, baita lehendakariarentzat, sailburuentzat, goi-kargudunentzat eta parekoentzat eta behin-behineko langile eta zuzendaritza-kideentzat ere.*

*Bosgarrena.- 2024ko irailaren 13ko bileran, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuan jasotako soldata-igoeren eta EUDELen gomendioaren berri eman zitzaion enpresa-batzordeari.*

*Aurrekariak ikusita, honako hau erabaki du,*

*posterioridad cuando se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE, de lo cual EUDEL les mantendrá puntualmente informados e informadas.*

*Tercero.- En el Pleno del Ayuntamiento de Beasain, de 5 de diciembre de 2023, se aprobó el presupuesto para 2024 con los incrementos retributivos y consignación presupuestaria suficiente.*

*Cuarto.- En la RESOLUCIÓN 83/2024, de 31 de julio, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueba el incremento, para el año 2024, de las retribuciones del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. ACUERDA:*

> *Autorizar, con efectos de 1 de enero de 2024, un incremento retributivo general del 2 % con respecto a las retribuciones anuales íntegras vigentes a 31 de diciembre de 2023, para el personal al servicio de Administración General, organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, no sujeto a régimen laboral, así como del lehendakari, consejeros y consejeras, altos cargos y asimilados, personal eventual y personal directivo.*

*Quinto.- En sesión celebrada de fecha 13 de septiembre del 2024 el Comité de empresa ha sido informado de los incrementos salariales recogidos en Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio para 2024 y la recomendación del EUDEL.*

*A la vista de los antecedentes,*

*La Comisión de Organización en reunión celebrada en fecha 19 de septiembre de 2.024, acuerda someter a la consideración*

*Antolakuntza Batzordeak 2024ko irailaren 19an egindako bileran Udalbatzari egitea ondorengo*

*AKORDIO PROPOSAMENA*

*Udal Langile publikoen ordainsariak % 2an handitzea 2024ko urtarrilaren 1eko efektuekin.*"

*del Ayuntamiento Pleno la siguiente,*

*PROPUESTA DE ACUERDO*

*Primero.- Incrementar las retribuciones del personal empleado público municipal en un 2 % con efectos del 1 de enero de 2024."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

En el turno de intervenciones los asistentes se muestran de acuerdo con la propuesta.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

En consecuencia, tras realizar la votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

d.- GOBERNU-ORGANOEN ETA ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK IGOTZEKO AKORDIO PROPOSAMENA, ARDURALDI OSOA ETA PARTZIALA ETA TALDE POLITIKOEN ESLEIPENAK ETA KALTEORDAINAK KIDE ANITZEKO ORGANOETARA BERTARATZEAGATIK. 2024PEBO0154

d.- PROPUESTA DE ACUERDO INCREMENTO RETRIBUCIONES ÓRGANOS DE GOBIERNO Y CONCEJALES CON DEDICACIÓN COMPLETA Y PARCIAL Y ASIGNACIONES GRUPOS POLÍTICOS E INDEMNIZACIONES ASISTENCIA ÓRGANOS COLEGIADOS.

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena:

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Organización:

*"Gaia: gobernu-organoen eta zinegotzien ordainsariak igotzeko akordio proposamena, arduraldi osoa eta partziala eta talde politikoen esleipenak eta kalteordainak kide anitzeko organoetara bertaratzeagatik.*

*"Asunto: propuesta de acuerdo incremento retribuciones Órganos de Gobierno y concejales con dedicación completa y parcial y asignaciones grupos políticos e indemnizaciones asistencia órganos colegiados.*

*AURREKARIAK*

*ANTECEDENTES*

*I.- Gobernu organo eta zinegotzien ordainsariei dagokionez, udalbatzak, 2023ko uztailaren 6an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen zehaztea alkatearen dedikazio esklusiboko araubidea, lehen alkateordearen dedikazio araubidea, % 100ekoa eta bigarren alkateordearen dedikazio araubidea % 100ekoa.*

*I.- En referencia a las retribuciones de los Órganos de Gobierno y concejales con dedicación completa, el Ayuntamiento Pleno en la sesión ordinaria celebrada el 6 de julio de 2023, adoptó el acuerdo de determinar el régimen de dedicación exclusiva para el Alcalde, el régimen de dedicación del 100 % para la Primer Teniente de Alcalde y el régimen de dedicación del 100% para el segundo Teniente Alcalde.*

*Udalbatzak, 2024ko uztailaren 22an egindako ohiko bilkuran, Beasaingo EH BILDU udal-*

*El Ayuntamiento pleno en sesión ordinaria celebrada el 22 de julio del 2024 adoptó el acuerdo de determinar del régimen de*

*taldeko oposizioko zinegotziari % 50eko arduraldi partziala ezartzea erabaki zuen.*

*dedicación parcial del 50 % al concejal de la oposición perteneciente al grupo municipal Beasaingo EH BILDU.*

*Aldi berean. Udalbatza Osoak, 2023ko uztailaren 6ko egindako aparteko bileran, Talde politikoen asignazio eta organo kolegiatutako bileretara joateagatik kalteordainei dagokion akordioak hartu zituen. Akordioaren 6. puntuan diru kopuru hauek 2024tik aurrera eguneratu egingo dira kontuan izanda urte bakoitzeko Estatuko Aurrekontuaren Legea edota dagokion legeriak ezartzen duena funtzionarioekiko.*

*A su vez, el Ayuntamiento Pleno en la sesión ordinaria celebrada el 6 de julio de 2023, se adoptaron acuerdos en referencia a las asignaciones a Grupos Políticos e indemnizaciones por asistencia a sesiones de órganos colegiados. En el punto 6. del acuerdo se precisa que las cantidades se actualizarán a partir de 2024, de acuerdo a lo que para el personal funcionario disponga la Ley de Presupuestos del Estado de cada año o legislación correspondiente.*

*II.- Ordainsariak ezartzeko erreferentziatzat 7/2018 Foru Arauaren 5. xedapen gehigarrian xedatutakoa hartu denez, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzako zuzendariarena, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriei dagokielako, eguneraketak kargu horren modu berean egingo dira.*

*II.- Habiéndose tomado como referencia para establecer las retribuciones lo dispuesto en la Disposición Adicional 5.ª de la Norma Foral 7/2018, y en concreto la del Director del Gobierno Vasco por ser la que corresponde a los municipios con n.º de habitantes de 10.001 hasta 20.000, las actualizaciones se efectuarán del mismo modo que la de ese cargo.*

*III.- 2024ko abuztuaren 6an, EHAAn argitaratu zen 83/2024 EBAZPENA, uztailaren 11koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen lansarien % 2ko igoera gehigarria 2024. urterako onartzen duen erabakia. Zehazki,*

*III.- Con fecha 6 de agosto del 2024 se publica en el BOPV RESOLUCIÓN 83/2024, de 31 de julio, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueba el incremento adicional del 2 % para el año 2024, de las retribuciones del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En concreto,*

*"Seigarrena.- Lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinetsitakoen ordainsariak honako hauek izango dira 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera:*

*“Sexto. - Las retribuciones del Lehendakari, Consejeros y Consejeras, Altos Cargos y asimilados, desde el 1 de enero de 2024, serán las siguientes:*

| | *Sueldo mes (euros)* | *Retribución total (euros)* |
|---|---|---|
| *Presidente/Presidenta* | *8.333,66* | *116.671,24* |
| *Vicepresidente/Vicepresidenta* | *7.825,43* | *109.556,02* |
| *Consejero/Consejera* | *7.428,80* | *104.003,20* |
| *Viceconsejero/Viceconsejera* | *6.723,23* | *94.125,22* |
| *Director/Directora* | *5.733,08* | *80.263,12* |
| *Vocal Cojua* | *5.732,74* | *80.258,36* |

| | | |
|---|---|---|
| *Pensionista Lehendakari* | *4.166,85* | *58.335,90* |
| *Pensionista* | *3.714,43* | *52.002,02* |

*Aurrekariak ikusita,*

*Antolakuntza Batzordeak, 2024ko irailaren 19an egindako saioan, Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egitea erabaki du,*

*AKORDIO PROPOSAMENA*

*<u>Lehena</u>.- Beasaingo Udaleko arduraldi esklusiboko eta partzialeko karguen ordainsarietarako erreferentziatzat hartuko da aurrekarien II. atalean aipatutako Eusko Jaurlaritzako zuzendariaren ordainsaria, 2023ko uztailaren 6ko eta 2024ko uztailaren 22ko Osoko Bilkuren erabakiekin bat etorriz, eta kasu bakoitzeko ezarritako proportzioan, hau da:*

*Dedikazio esklusiboak: %100*

- *Alkatea: % 100.*
- *Lehenengo Alkateordea: Alkaterenaren % 85.*
- *Bigarren Alkateordea: Alkaterenaren % 75.*

*Arduraldi partzialak: % 50:*

- *Beasaingo EH BILDU udal-taldeko oposizioko zinegotzia: Alkaterenaren % 65.*

*<u>Bigarrena</u>.- 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, talde politikoentzako asignazioak eta kide anitzeko organoen bileretara joateagatiko kalte-ordainek % 2ko gehikuntza izango dute 2023ko uztailaren 6ko osoko bilkuraren erabakiarekin bat etorriz.*"

*A la vista de los antecedentes,*

*La Comisión de Organización en reunión celebrada en fecha 19 de septiembre del 2.024, acuerda someter a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente,*

*PROPUESTA DE ACUERDO*

*Primero.- Determinar que para las retribuciones de los cargos con dedicación exclusiva y parcial del Ayuntamiento de Beasain se tomará como referencia la retribución del Director del Gobierno Vasco a la que se ha hecho referencia en el apartado II de los antecedentes, de conformidad con los acuerdos plenarios de 6 de julio del 2023 y 22 de julio del 2024 en la proporción establecida para cada caso, esto es:*

*Dedicaciones exclusivas: 100%*

*• Alcalde: 100%.*

*• Primer Teniente de Alcalde: 85% de la del Alcalde.*

- *Segundo Teniente de Alcalde: 75% de la del Alcalde.*

*Dedicaciones parciales del 50% :*

- *Concejal de la oposición perteneciente al grupo municipal Beasaingo EH BILDU: 65% de la del Alcalde.*

*Segundo.- Determinar que con efectos de 1 de enero de 2024, las asignaciones a los grupos políticos y las indemnizaciones por asistencia a reuniones de órganos colegiados, será de un incremento del 2 % adicional de conformidad con el acuerdo plenario del 6 de julio del 2023.""*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Con el incremento de las retribuciones del personal estamos de acuerdo. Respecto de los cargos públicos, en el mes de julio ya decíamos que el gasto público es de 300.900 €/año aproximadamente. Ahora se propone incrementar un 2%, alrededor de 4.600 €. La cantidad es llamativa. Nos parece un gasto político desproporcionado. Por lo tanto, estamos en contra."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “%2ko igoera positiboa da. Gogoratu egin behar da langile publikoek azkeneko urteetan galdu duten erosahalmena izandako murrizketagatik eta oraindik ere guztiz berreskuratzea falta dela. Kargu politikoena ez dugu errepikatuko azkeneko plenoan ere azaldutako gure iritzia. Gure botoa ere ezezkoa izango da.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar (EH Bildu de Beasain): "Es un incremento positivo del 2%. Hay que recordar que los empleados públicos han perdido su poder adquisitivo en los últimos años por las reducciones sufridas y aún falta recuperarlo por completo. No repetiremos la opinión respecto a los cargos políticos expuesta en el último pleno. Nuestro voto también será contrario. "

Alkate andreak (EAJ-PNV): “2023ko uztailaren 6ko legealdi berriaren antolaketa plenoan adostutakoa aurrera eramatea besterik ez dugu egiten eta azkeneko plenoan, nolabait ere, akordio hori berretsi egin zen. Beraz, gure aldetik aldeko bozka izango du.

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Lo único que hacemos es llevar adelante lo acordado en el pleno de organización de la nueva legislatura del 6 de julio de 2023 y en el último pleno, de alguna manera, se ratificó ese acuerdo. Por lo tanto, tendrá un voto favorable por nuestra parte.

Pertsonalarekiko, Langileen Batzordeak ere esan du azken urteetan erosahalmena gutxitu egin dela. Orain negoziazio epe bat irekitzen da, azkenekoaren epealdia orain amaitzen delako eta ea bidezkoak diren soldata-igoerak lortzeko aukera dagoen eta guk hartu beharreko erabakiak, hemen hartuko dira.”

Respecto al personal, el Comite de Trabajadores también dice que en los últimos años ha disminuido el poder adquisitivo. Ahora se abre un periodo de negociación porque el plazo del último acaba ahora y a ver si hay posibilidad de conseguir subidas salariales que sean justas y las decisiones que tengamos que tomar, se tomarán aquí. "

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)
Aurkako botoak: 8 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde)
Abstentzioak: 0
Etorri gabeak: 0

En consecuencia, tras realizar la votación se obtiene el siguiente resultado:

Votos a favor: 9 (EAJ-PNV)
Votos en contra: 8 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde)
Abstenciones: 0
Ausentes: 0

